

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

2574

AGINDUA, 2014ko ekainaren 4koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuarena, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edota garatzeko diru-laguntzak emateko modua arautu eta horretarako deia egiten duena.

Euskadiko liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen bidez sortu zen Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea (EIPS). Besteak beste, hauek dira sare horren zereginak: liburutegientzako laguntza-programak eta zerbitzuak jartzea, batez ere sare informatikoak antolatzeko, irakurzaletasuna eta liburutegien erabilera sustatzeko kanpainak egiteko, funtsak eskuratzeko eta beste helburu batzuetarako.

Bestalde, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren arabera, Liburutegi Zerbitzuaren eskumena da Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareari dagozkion egitekoak garatu eta gauzatzeko, bai eta ondare bibliografikoaren eta liburutegien alorrean diren beharrak aztertzea eta arauzko neurriak proposatzea eta liburutegien eta ondare bibliografikoaren alorreko politika kudeatzeko neurriak diseinatzea eta betearaztea, horretarako beharrezko diren proiektuak sustatuz, bultzatuz eta zuzenduz.

Araudi horiekin bat etorritik, eta udal liburutegi publikoen eginkizun funtsezkoena aintzat hartuta, (herriar orok ezagutza eta informazioa jasotzeko gune izatea), eta teknologia berriek horretan duten garrantzia kontuan izanda, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak uste du beharrezkoa dela teknologia horiek udal liburutegi publikoetan ezartzeko eta garatzeko lagungarri izan daitezkeen jarduerak bultzatzea.

Horregatik guztiagatik, hau

EBATZI DUT:

1. artikulua.– Xedea.

Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko udal liburutegi publikoetan eskumena duten Euskal Autonomia Erkidegoko udalei eta udal liburutegien arloan eskudun diren erakundeei, beren liburutegietan teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko 2014. ekitaldirako diru-laguntzak emateko modua arautzea eta horretarako deialdia egitea da agindu honen helburua.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Agindu honen bidez araututako diru-laguntzetarako 350.000,00 euro erabiliko dira gehienez.

2.– Agindu honetara bideratutako diru-kopuruak handitu egin ahal izango dira aginduaren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.

3. artikulua.– Izapidetzea.

1.– Erakunde interesdunek soilik bide elektronikoak erabili ahal izango dituzte prozedura honetako izapideak eskatzeko, kontsultatzeko eta bideratzeko.

2.– Honako egoitza elektroniko honetan daude eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko zehaztapenak:

https://www.euskadi.net/ayuda_subvencion/-/2014/nuevas_tecnologias/es/

3.– Eskaeraren osteko izapideak helbide honetan egingo dira, bide elektronikoz: <https://www.euskadi.net/misgestiones>

4. artikulua.– Onuradunak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko udal liburutegi publikoak kudeatzeko eskudun diren udalek eta toki-erakundeek eskuratu ahal izango dituzte agindu honetan zehaztutako diru-laguntzak, baldin eta liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarearen barruan bada edo sare horretan sartzeko eskabidea egin bada, beti ere eskaera aurkezteko epea amaitu baino lehen.

2.– Ezingo dute diru-laguntzarik eskatu laguntza publikoak lortzeko zehapen administratibo edo penalik duten erakundeek, ezta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekurik dutenek ere. Halaber, ezingo dute agindu honetako diru-laguntzarik eskatu, kasuan kasuko zehapenak ezarritako epean, sexu-bereizkeria dela-eta zehapen administratibo edo penalik duten pertsona juridikoek, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarrez jarritako zehapenen ondorioz debeku hori dutenek ere.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomiadunek ezaugarri bereko beste laguntzaren batzuk eman izana dela-eta horiek itzultzeko edo zigortzeko prozesuren bat oraindik ere izapidetzen ari bada, prozesu hori amaitu egin beharko da onuradunei laguntzak eman edo ordaindu ahal izateko.

5. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen jarduera eta gastuak.

1.– Honako jarduera hauek finantzatu ahal izango dira: Euskadiko Irakurketa Publikoko On Line Sareko liburutegi publikoetan teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko elementuak eskuratu eta ezartzeko egiten diren jarduerak, zehazki, 2014. urtean egiten direnak.

2.– 2014. urtetik harago zabaltzen diren inbertsio-proiektuen zati bat diren inbertsio-jarduerak finantzagai izango dira, baldin eta 2014. urtean gauzatzen badira, erabilera beregaina dutela jotzen bada, eta haien banakako kostua zehaztu ahal bada.

3.– Zehazki, honakoak eskuratzea edo instalatzea izango da laguntzagai:

a) Hardware edo euskarri fisikoa. Ordenagailuak eta bere osagaiak sartzen dira bertan, bai eta funtzionamendurako edo erabilerarako beharrezkoa den beste edozein elementu material ere, dela ordenagailua modu autonomoan lanean diharduela, dela sarean diharduela (mahaigaineko ordenagailuak, ordenagailu eramangarriak, pdak, eskanerra, pantaila lauak, periferikoak, routerak, biltegiatze unitateak, txartel grafikoak, saguak, aurikularrak, inprimagailuak, eta abar).

b) Software edo informatika sistemen euskarri logikoa. Alegia, halako ataza zehatz bat egiteko beharrezkoak diren programa eta prozeduren multzoa. Horretarako, liburutegi-kudeaketarako sistemak ez diren sistemen softwarea eta aplikazioen softwarea sartzen dira atal honetan.

c) Telekomunikazioak. Komunikazio-sareak instalatzea, bai hari bidezkoak bai haririk gabekoak.

4.– Ondorengoak joko dira agindu honetan jasotako araudiaren babesean diruz laguntzeko moduko gastutzat: aurkeztutako eskabidean jasota egonik diruz laguntzeko jarduerarekin lotura estua dutenak; bai erosketatik eratortzen direnak, bai errentamendutik edo laguntzeko moduko elementuen benetako erabilgarritasuna bermatzen duten bestelako edozein sistematik eratortzen direnak.

5.– Ez dira diruz lagunduko:

- a) Ikus-entzunezko edo bestelako ekipamenduak, bere ezaugarriak direla-eta 3. puntuko ezein ataletan sartzen ez badira.
- b) Mantentze-lan, laguntza tekniko edo aholkularitza moduan definitzen diren zerbitzuen kostuak.
- c) Liburuzainak edo erabiltzaileak teknologia berrien erabileran trebatzeko prestakuntza-ikastaroak.
- d) Liburutegien presentzia Interneten areagotzea beste asmorik ez duten software eta gainerrako elementuak.
- e) Liburutegiarentzako funtsak eskuratzea, edozein dela ere funts horien euskarria, lokalizazioa eta edukietan sartzeko beharrezkoa den ekipamendua.

6. artikulua.– Erakunde eskatzaileen betebeharrak eta baldintzak egiaztatzea.

1.– Eskarrietan, laguntza eskatzen duten erakundeek aukera izango dute beren-beregi adierazteko baimena ematen diotela organo kudeatzaileari datuak lortu edo egiaztatzeko, hargatik eragotzi gabe Administrazio Publikoak dagozkion egiaztatze-, kontrol- eta ikuskatze-ahalmenak betetzea.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua betez, eskabidearekin batera egindako erantzukizunpeko adierazpen baten bitartez, honako betebeharrak hauek egiaztatuko dira:

– Helburu bererako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu, eta, hala badagokio, jaso direla adierazi behar du erakunde eskatzaileak, edozein administrazio-tatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorriak direla ere.

– Erakunde eskatzaileak egiaztatu behar du ez dagoela laguntza edo diru-laguntza publikoak jasotzea eragozten dion zehapen administratibo edo penal baten pean, edo ez daukala horretarako legezko debekurik.

– Sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalik ez du izan behar eskatzaileak, ezta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen indarrez jarritako isunen ondoriozko debekurik ere.

– Halaber, erakunde eskatzaileak adierazi behar du egiazkoak direla eskaeran eta harekin batera aurkeztutako dokumentuetan agertzen diren datuak, eta betetzen dituela diru-laguntzak jasotzeko indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak.

7. artikulua.– Eskabideak eta formularioak aurkeztea.

1.– Agindu honetan araututako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Eskabideak aurkezteko, bide elektronikoa erabiliko da, zehazki, agindu honen 3 artikuluan adierazitako egoitza elektronikoa: <http://www.euskadi.net/misgestiones>

3.– Erakundeek euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkeztu ahal izango dituzte eskabidea eta dokumentuak. Halaber, erakunde eskatzaileak aukeratzen duen hizkuntza hori erabiliko da prozedura

osoan, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeko 5.2.a) eta 6.1 artikuluek xedatzen duten moduan.

4.– Eskabidearekin batera honako agiri hauek ere aurkeztu beharko dira:

a) Erakunde eskatzaileko teknikari arduradunek sinatutako txosten bat, honako zehaztasun hauek jasoko dituen: diruz laguntzekoak izan eta 2014. urteko ekitaldian egindako edo egin beharreko jarduerak, erosketa edota instalazioarekin lortu nahi diren helburuak, eta haien beharraren justifikazioa.

b) 2014ko ekitalditik harago zabaltzen diren inbertsio-proiektuen zati edo osagai baldin badira jarduerak, haien banakotasuna eta erabilera beregaina dutela egiaztatu beharko da, eta jarduera horiek banaka duten kostua zehaztu beharko da. Kasu horretan, eskabidea jarduera horietara mugatuko da.

c) Ondasunak edo instalazioak jartzen dituzten enpresa hornitzaileen aurrekontuak, jardueretan aurreikusitako gastua justifikatuko dutenak.

5.– Eskabidea legez eraturako udal erakundeek edota udal liburutegi publikoen arloan eskumena duten udal erakundeek egiten badute, beren helburuen artean liburutegi publikoaren zerbitzua edo eskumena elkarrekin kudeatzea dagoela egiaztatu beharko dute agirien bidez.

Eusko Jaurlaritzak lehendik baldin badauka dokumentazio hori, ez da agiri hori aurkeztu beharko.

8. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatuko dituen organoa.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzari dagokio agindu honen bidez araututako diru-laguntzak kudeatzeko egin beharrekoak egitea.

9. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Eskabidea izapidetara onartzeko eskatzen diren dokumentu batzuk falta direla edo horietan forma-akatsak daudela ikusiz gero, edo eskabidea balioesteko aurkeztutako dokumentazioan akatsak aurkituz gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari huts-egitea konpon dezan edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan, eta jakinaraziko zaio hori egiten ez badu haren eskabidean atzera egin duela edo izapidetzeko eskubidea galdu duela ulertuko dela; betiere, aurrez dagokion ebazpena emango da.

10. artikulua.– Eskaeren ebaluazioa.

Kultura Ondarearen Zuzendaritzari dagokio aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzea. Era berean, zuzendaritza horrek osatuko du ebazpen-proposamena eta, ondoren, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari igorriko. Bertan honako informazioa jasoko da: onuradun izateko proposatzen diren erakundeen zerrenda eta bakoitzari esleitutako diru-kopurua, laguntza ukatzea proposatzen den eskabideen zerrenda eta ezezkoaren arrazoa, eta emandako diru-laguntzak modu egokian erabiliko direla ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen diren baldintza guztiak.

11. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoa zehaztea.

1.– Deialdiaren diru-baliabideak agindu honetan diru-laguntzak eskuratu ahal izateko ezarritako eskakizun eta baldintza guztiak betetzen dituzten eskatzaileen artean banatuko dira.

2.– Eskatzaile bakoitzari zehatz-mehatz eman beharreko diru-kopurua zehazteko, hurrengo atalean finkatutako irizpideak eta Aginduaren hurrengo atalean jasotako kalkulu-sistema aplikatuko dira.

3.– Banatu beharreko diru-kopurua zehazteko, honako irizpide hauek hartuko dira aintzat:

a) Biztanleria irizpidea: erakunde onuradunaren udalerriak zenbat biztanle dituen hartuko da kontuan. Horretarako, biztanleen arabera multzoak finkatuko dira, eta haiei balore homologatu batzuk eta indize zuzentzaile batzuk aplikatuko zaizkie. Erakunde onuradunen udalerrietan zenbat eta biztanle gutxiago bizi, orduan eta handiagoak izango dira multzo horren baloreak eta indizeak.

b) Formulak eta koefizienteak:

KOEFIZIENTEAK

1.– Biztanleria irizpidea.

a) Herrien homologazioa (P). Erakunde onuradunen herriak biztanle-kopuruaren arabera sailkatu ditugu, eta herrien P balore homologatua lortu dugu, eskala honen arabera:

Biztanleak	P
0tik 1.000ra	1.000
1.001etik 2.000ra	2.000
2.001etik 3.000ra	3.000
3.001etik 5.000ra	5.000
5.001etik 10.000ra	10.000
10.001etik 15.000ra	15.000
15.001etik 20.000ra	20.000
20.001etik 25.000ra	25.000
25.001etik 50.000ra	50.000
50.001etik 100.000ra	100.000
100.001etik 150.000ra	150.000
150.001etik 200.000ra	200.000
200.001etik 250.000ra	250.000

50.000naka jarraitzen du

Adibideak: 3.248 biztanle dituen udalerrri bat 5.000 dituenarekin parekatuko da, eta 54.949 biztanle dituen beste bat 100.000 dituenarekin.

b) Biztanleria irizpidea. Koefiziente zuzentzailearen aplikazioa (IZ).

Honako koefiziente zuzentzailea ezarriko da:

Biztanleak	Z
0tik 1.000ra	1,8
1.001etik 2.000ra	1,6
2.001etik 3.000ra	1,4

3.001etik 5.000ra	1,2
5.001etik 10.000ra	1
10.001etik 25.000ra	0,8
25.001etik 50.000ra	0,6
50.001etik 150.000ra	0,4
150.001etik 200.000ra	0,3
200.001etik 250.000ra	0,25
250.001 eurotik gorakoak	0,2

FORMULA

P: biztanle-tarteentzako homologatutako biztanle-kopurua.

IZ Indize zuzentzailea.

B: onuradunak eskuratutako puntuazioa.

BB: onuradun guztiek eskuratutako puntuen batura; hau da, B guztien batura.

DK: diru-baliabide erabilgarriak. Aginduaren diru-hornidura 350.000,00 eurokoa da. Soberakinak banatzeko, agindua aplikatu osteko baliabideak hartuko dira kontuan.

DL: onuradun bakoitzari esleitutako diru-kopurua. Hori zehazteko, onuradun bakoitzak lortutako puntuak eta onuradun guztiek lortutako puntuazioen artean betetzen duen lekua hartuko dira kontuan.

Prozedura honelakoa da:

1.– Onuradun bakoitzari P eta IZ baloreak esleituko zaizkio.

2.– P eta IZ baloreak elkarrekin biderkatuko dira, onuradun (B) bakoitzak zer puntuazio eskuratzten duen jakiteko.

3.– Onuradun (B) guztien puntuazioen batuketa egingo da, BB balorea eskuratzeko.

4.– Onuradun bakoitzari egokituko zaion zenbatekoa jakiteko, kalkulu hau egingo da: eskura dauden baliabideak onuradun bakoitzaren puntuazioarekin biderkatuko dira lehenbizi, eta horko emaitza onuradun guztien puntuazioaren baturarekin zatituko da. Hau da: $DL = DK * B / BB$

5.– Kalkulatzeko sistema hori aplikatu eta lehenengo emaitzak erakusten badu eskabideren batean gainfinantzaketa egon dela, hasieran esleitutako kopurua murriztuko zaie eskatzaile horiei, eta soberakina gainerako eskatzaileen artean banatuko da, eta behar adina aldiz errepikatuko da eragiketa hori. Esleitutako kopuruak inolaz ere ez du gaindituko agindu honetako 12. artikulua 1. puntuan jasotako muga.

12. artikulua.– Diru-laguntzen zenbatekoak, mugak, ordainketa eta bateragarritasunak.

1.– Jasotako diru-laguntzak ez du gaindituko eskatutako gastuaren % 90, eta inolaz ere ez da izango 100.000,00 eurotik gorakoa erakunde onuradun bakoitzeko.

Diru-laguntza justifikatzeko eta likidatzeko dokumentazioan ikusten bada baldintza hori ez dela betetzen, diru-laguntza murriztuko da behar den heineraino.

2.– Diru-laguntza ordainketa bakar batean emango da.

3.– Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandakoekin, baldin eta helburu berbererako badira, eta, betiere gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Gainfinantzaketarik badago, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu egingo da, dagokion gehienezko mugaraino.

13. artikulua.– Ebazpena eta jakinarazpena.

1.– Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari dagokio, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako ebazpen-proposamena ikusita, deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzei buruzko ebazpena ematea. Ebazpen horretan adieraziko dira zein izango diren erakunde onuradunak eta zenbateko diru-laguntza jasoko duen bakoitzak, baita zein eskabideri ukatu zaien laguntza eta horretarako arrazoiak ere.

2.– Diru-laguntzei buruzko prozedura ebazteko eta erabakitakoa interesdunei jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez ere, agindu hau argitaratzen den egunaren biharamunik kontatzen hasita.

3.– Ebazpena, jakinarazpen gisa, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

4.– Epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, eskabidea ezetsi egin dela ulertu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44.1 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

5.– Aurreko paragrafoan esandakoaren kaltetan izan gabe, agindu honen 9. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar bada, ebazpena emateko epea eten egingo da izapide horrek eskatzen duen bezainbat denboraz, jakinarazpena jaso eta horri erantzuteko epearen arabera.

6.– Artikulu honetan aipatzen den ebazpenak ez du administrazio-bidea agortzen, eta erakunde interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute horren kontra Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuaren aurrean, hilabete bateko epean jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluei jarraiki.

14. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Hauek dira erakunde onuradunen betebeharrak:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, diru-laguntza eman zaiela aditzera ematen duen jakinarazpena jaso eta hamabost eguneko epean ez badiote diru-laguntzari espresuki uko egiten, onartu egin dutela ulertuko da.

b) Diru-laguntza agindutako helburu zehatzerako erabiltzea.

c) Jarduera aurrera eramatea, edo diru-laguntza ematea bidezko egiten duen egoeran egotea.

d) Diru-laguntza eman duen erakundeari justifikatzea emate hori eragin duten edo laguntzaz baliatzea eragin duten baldintzak betetzen direla eta jarduera bera aurrera eraman dela.

e) Laguntza eman duen erakundeak egiten dituen egiaztapenen mende eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak burutzen duen ikuskaritzaren mende egotea, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu

orokorren kontura eskuratzen diren laguntza edo diru-laguntzei dagokienez. Era berean, Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren araudi bereziko neurrien mende ere egotea.

f) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk helburu bererako emandako diru-laguntzak, laguntzak, dirua edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea diru-laguntza eman duen erakundeari.

g) Beste erakunde publiko zein pribatuei xede berberarekin diru-laguntzarik eskatu bazaie eta agindu honetan arautzen diren diru-laguntzetarako eskabidea egiteko unean erabakitzeke bazeuden edo haien egoeraren berririk ez bazen, laguntza horien egoera zein den adierazten duen agiria aurkeztea.

h) Diru-laguntza jasotzeko kontuan hartu zen edozein egoera objektiboren edo subjektiboren aldaketa oro jakinaraztea diru-laguntza eman duen erakundeari.

i) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Liburutegi Zerbitzuak emandako babesa beren-beregi adieraztea, diru-laguntza honen ondorioz egiten diren jarduera eta dokumentu guztietan, bai eta horien publizitatean ere.

j) Sexismorik gabeko hizkera erabiltzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak agintzen duenari jarraituz. Gizon eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez dagoela bermatzea.

k) Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 50.2 artikuluan ezarritako beste edozein betebeharrak. Azaroaren 11ko 1/1997 Legegin-tzako Dekretuaren bidez onartu zen aipatutako Legea.

15. artikulua.– Diru-laguntzen justifikazioa eta kitapena.

Diru-laguntza justifikatzeko dokumentazioa 2014ko abenduaren 30a baino lehen aurkeztu behar da.

Eskabideak bide elektronikoaren bitartez aurkeztu behar dira, zehazki, agindu honen 3 artikuluan adierazitako egoitza elektronikoan.

Laguntzak justifikatzeko, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

– Kontu-hartzailearen edo, hala badagokio, idazkari kontu-hartzailearen egiaztagiria, «Justifikazioak» ereduaren arabera. Honako informazio hau jaso behar da egiaztagiri horretan: egindako gastuak eta, halakorik balego, helburu bererako jasotako diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabideen zerrenda.

– Laguntza emateko ebazpenean eskatzen den beste edozein agiri.

Dokumentazioa jasotakoan edo epea bukatutakoan, Kultura Ondarearen Zuzendaritzak, kasuan kasuko dokumentazioa aztertu ondoren, diru-laguntza ordaintzeko agindua emango du eta, murrizketarik egin behar bada, bakoitzari dagokion likidazioaren proposamena igorriko dio Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeari, hari baitagokio horren inguruko ebazpena ematea bi hilabeteko epean, justifikazioak aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasita.

16. artikulua.– Baldintzak ez betetzea.

Hauek izango dira ez-betetzeak:

1.– Jasotako diru-laguntza osoa edo zati bat agindu honetan adierazitako jardueraz bestelakoe-tan erabiltzea.

2.– Agindu honetan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, laguntza emateko ebazpe-nean adierazitako baldintzak ez betetzea.

3.– Legezko beste xedapenen batek ezarritako beste edozein betebeharrak orokor ez betetzea.

Ez-betetzereen bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko interesak Euskal Auto-nomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkie, betiere, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuan eta abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan xedatutakoa aurrez beteta (1/1997 Legegintzako Dekretua, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena; 698/1991 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horien itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen duena eta horien kudeaketan parte hartzen duten erakunde laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituena).

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Agindu honetako 2. artikuluan adierazitako diru-kopuruak handitu ahal izango dira, baldin eta aurrekontuak agortu gabe geratu badira Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren beste laguntza-programa batzuk burutu ondoren edota indarreko legediaren arabera egindako aurre-kontu-aldaketen ondoren.

Gehikuntza hori gertatuz gero, diru-laguntzei buruzko ebazpena eman baino lehen egin behar da, eta horren berri emango da Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearen ebazpen baten bitartez.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA

Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea betez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jakinarazten du, emandako datuak eta deialdi honen eskabidean eta inprimakietan ageri direnak bere jabetzako fitxategi batean sartuko direla, «Kultura Ondareari loturiko Kultura Saila-ren Laguntzak eta Diru-laguntzak» izenekoan, hain zuzen. Fitxategi hori 2006ko uztailaren 26ko Aginduan araututa dago. Diru-laguntzen deialdi hau eta berarekin lotutako beste edozein adminis-trazio-prozedura edo -espediente kudeatu ahal izatea da fitxategi horren xedea. Datuak Babesteko Euskal Bulegoari lehendik eman zaio fitxategi horren berri, datuen segurtasun osoa bermatzeko segurtasun-neurriak ditu eta datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, legez agindutako kasuetan izan ezik.

Izaera pertsonaleko datuak babesteari buruzko arautegiarekin bat etorritik, datu horiek eskura-tzeko, ezabatzeko, zuzentzeko eta horien aurka egiteko aukera dute interesdunek, halaxe onartzen baitu beren-beregi Datu Pertsonalak Babesteko Legeak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren Hez-kuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Araubide Juridiko eta Zerbitzuen Zuzendaritzara jo beharko dute (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.)

Deialdi honetan parte hartzen duten pertsonen baimena ematen diote Administrazioari eman-dako datuak konparatzeko, eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiaztatzeko (Administrazio honen esku egon, edo beste Administrazio Publiko batzuen esku egon), laguntzen onuradun iza-teko eskatutako baldintzak betetzen direla edo betetzen jarraitzen dela egiaztatzeko.

Era berean, emandako diru-laguntzak EHAAan argitaratuko direla jakinaraziko zaie eskabideak egiten dituztenei.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honetan aurreikusi gabeko alderdiei dagokienez, honakoak aplikatuko dira: azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako EAeko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren VI. Tituluko aurreikuspenak, eta 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, horren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari (azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 116. artikulua), hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, aurrez aipatutako data beretik aurrera (uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. artikulua).

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko ekainaren 4a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.